

ETSAIAK

Unai Lires Arrieta, 14 urte

Ondarroa

Ez dira naziak beraien burusoilekin.

Ez dira arropa arrosak.

Ez da brokolia.

Ez dira Bush eta bere armada burugabea.

Ez dira kalatxorien gorozkiak.

Ez da dentista.

Ez dira idatzi behar ditudan idazlan amaigabeak.

Ez dira neska nahiz mutil pijoak.

Ez da logurea.

Ez dira inoren lepotik bizi diren gizakiak.

Ez dira ekaitz beldurgarriak.

Ez da alperkeria.

Ez dira erlijioaren aitzakiarekin egiten diren gerrak.

Ez dira pertsona berritsuak.

Ez da bulling-a.

Ez dira ulertzen ez ditudan hizkuntzak.

Ez dira marrazo ikaragarriak.

Ez da amodioa.

Ez dira amak jaztera behartzen nauen markako kamisetak.

Ez dira iratzargailu zaratatsuak.

Ez da gosea.

Ez dira zentimo xingle bat falta zaizula esateko
dendariaren moduak.

Ez dira goizeko 7:45 etako eguzki-izpi iskanbila-
tsuak.

Ez da heriotza.

Ez dira jaietan izaten diren jokaera alprojak eta
borrokak.

Ez dira tabernarien begirada zorrotzak.

Ez da gezurra.

Nire barruko sentimenduak dira

Nire etsairik handienak.